

Senior mailako eskubaloia taldea indartsu

AZKEN URTEETAN ERMUAN ESKUBALOIAN LAN HANDIA EGIN DA. HOR DAUDE KADETE ETA JUBENIL MAILAN EUSKAL LIGAN LORTURIKO EMAITZA BIKAINAK. HOR DIRA BAITA ERE, OHOREZKO MAILAKO DONOSTIAKO AKABA BERA BERA TALDEAN DITUGUN ZIARSOLO ETA LARREATEGI ESATE BATERAKO. HORREZ GAIN, BADA BESTE TALDE BAT, SENIOR MAILAKO NESKEN TALDEA. AZKEN URTEETAN IZUGARRIZKO EMAITZA ONAK LORTZEN ARI DEN TALDEA. MIKEL MARTIN ENTRENATZAILEAREKIN IZAN GARA.

-Zenbat urte daramatzu taldea zuzentzen?

6 urte daramatzat. Aurten jubenil mailako taldea ere nik zuzendu dut. Lanez gainezka ibili naiz baina gustora nago neskek erakutsi duten jarrerarekin. Eskerrak Alberto Fernandezek asko laguntzen didan.

-Aurten ere bikain momentuz...

Ohorezko mailaren ondoren dagoen mailan ari gara. 3 jardunaldi falta zaizkigu baina hala ere, jada igoera fasea jokatzeko sailkapena eskuratu dugu. Iaz baino errazago lortu dugu.

-Iaz ere igoera fasea jokatu zenuten Ibizan...

Espainiako elkarte autonomo bakoitzetik 2 sailkatzen dira eta 6 taldez osatu-

tako 3 multzo egiten dira. Ohorezko mailara aurreneko biak pasatu ohi dira baina iaz bakarrak zuen txartela eta gu, zoritxarrez bigarren geratu ginen.

-Artengo igoera fasea non izango da?

Oraindik zehazteke dago. Soilik apirilean izango dela dakigu.

-Zenbat neska daukazu senior taldean?

16 inguru. Batzuk lesio-natuta ere badauzkat.

-Zenbat aldiz entrenatzen duzue astean?

Normalean 3 egunetan. Ordu eta laurdeneko saioak egiten ditugu.

-Harrobi lana zer moduz doa?

Momentuz ondo. Urtez urte honi eusteko lan gogo-



rra egin behar izaten bada ere.

-Ikuslegoak ere erantzuten du?

Bai. Partidu gehienetan ikusle kopuru polita izaten dugu.

-Zer nolako maila du emakumeen eskubaloiak?

Aurten iaz baino maila bajuagoa dela uste dut. Zaurutz, Urdaibai, Mundaka.. horiek dira maila onena duten taldeak.

-Guztira zenbat talde dauz-

ka Ermuko taldeak?

Kadete mailan, euskal ligan du talde bat eta beste bat probintzi mailan ari dena. Jubenil mailan ere gauza bera. Bat euskal ligan eta probintzi mailan bestea. Azkenik, senior mailako taldea. 5 talde guztira.

-Mutilen taldea ere izan zen...

Hala da. Zoritxarrez jende berririk ez zetorren eta utzi egin behar izan zuten.

Asier Ibaibarriaga

FAMILIA, BIKOTE eta BANAKAKO TERAPIA

OREKA PSIKOLOGIA

CHARREMAN ARAZOAK
— bikotearekin
— familiarekin
— kideekin

JARRERA ARAZOAK
ESKOLA PORROTA
ANTSIETATEA, DEPRESIOA, ELIKADURA ARAZOAK

miriam mujika 676 61 70 55 AURRERA EDIFIZIOA
ainhoa basurko 615 70 37 25 URTZAILE KALEA-1.

KAFETEGIA XAGUA

Zubiaurre kalea, 23 behea